

Atletismoa ♦ Sidneyko Jokoetan parte hartu dezala eskatu diote Espainiako Federaziotik ere

Maite Zuñiga, berean

«Behin erabaki bat hartutakoan, kontsekuentea izan behar da»

Europa Press / Madril

ESPAINIAKO Atletismo Federaziotik bertatik eta bere inguruko jendearen aldetik, Sidneyko Joko Olimpikoetan parte hartzeko eskaerak jasotzen ari da Maite Zuñiga azkenaldian, behin eta berriz. Berak, ordea, berean jarraitzen du, eta iragarri bezala, apirilean erretiroa hartuko duela dio. «Nire asmoek asko aldatu beharko lukete, azkenean, Sidneyko jokoak prestatzeko», adierazi zuen atzo.

Izan ere, garbi dauka Maite Zuñigak, Sidneyra joatekoan, orain arte aritu den mailan aritzeko joango litzatekeela, baina ez du bere burua horretarako prestatuta ikusten: «Gauza bat da ekitaldi garrantzitsu batean arituko ez zarela pentsatuz entrena-tzea, eta beste bat da Joko Olimpiko batzuk prestatzea, zentzumen guztiak horretara bideratuta. Aspalditik pentsatzen dut ez dauzkadala aukera berdinak. Mentalki ez nago prestatuta eta, horrela Sidneyra joateak ez dauka zentzurik».

Joko Olimpikoetan, 1988an parte hartu zuen estreinakoz Maite Zuñigak, Seulen.



JULIO MUÑOZ / EFE

Maite Zuñiga, aurtengo Sevillako Munduko txapelketan, 1.500 metroetako proban.

MAITE ZUÑIGA

■ ■ ■ «Mentalki ez nago prestatuta eta, horrela Sidneyra joateak ez dauka zentzurik»

Ordutik aurrerako guztietan aritu da arabarra. Ulertzen du bere ingurukoei eta Espainiako Federazioko kideei bera bezalako atleten erretiroa gogorra egitea. «Baina erabaki bat hartzen denean kontsekuentea izan behar da. Ezin zara jendea nahasten ibili», nabarmendu zuen.

Odriozola: «Sidneyn egon behar luke»

Espainiako Atletismo Federazioko presidente Jose Maria Odriozola ez dator bat Zuñigaren erabakiarekin: «Sidneyn egon behar luke. Olimpiadetan zein nazioartean arrakasta handiena izan duen atleta da».

Errugbia ♦ Miarritzek, European Shield txapelketako itzuliko partida jokatu du Espainiaren aurka


Entrenamendua, baina ohiko jokalariekin

Koldo Alduntzin / Donostia

ASTEAZKENETAN bi talde elkarren kontra jarrita egin ohi du entrenamendu saioa Miarritzek, eta gehienbat, talde nagusian aritzen diren ohiko eta ordezkoen lehia izaten da. Joan den asteazkenean Tuterara eramandako jokalaria guztiak erabili zituzten Rodriguezek eta Lagisquetek Espainiaren kontra jokatzeko, Nicolas Morlaes izan ezik. Gaur (19:30) antzekoa egingo dute Espainiaren kontrako itzuliko partidari, hasierako hamabostekoan hamabi ohiko zelairatuko dituztelako. Betsen, Mazas, Coeurveille, Dagerre eta Artola ez dira ariko, eta Matiu, Darrichon,

Guerraçague, Keith, Lamour, Beraxategi eta Dutrey orde-zko izango dira.

Bistan da Aguilera zelaia- ren egoerak zerikusi handia izango duela jokoan, eta us-tez, defentsan ariko denaren mesederako izango dela. Errugbian, ordea, aitzin-multzo sendo, mardul eta ba-loi irabazlea duenak izan ohi ditu aukera gehienak nago-sitzeko. Horrez gain, baloia hankaz jokatzeko trebezia ere behar da, eta egun, Boti-cak aldea ateratzen dio Aitor Etxebarria kontrarioari. Bes-tetik, joanekoan bederatzi entsegu egin zizkion Miarrit-zek Espainiari, eta gaur bes-te horrenbeste edo gehiago egingo dizkio.



KOLDO ALDUNTZIN

Nicolas Couttet berriz ariko da.

Miarritze: Fitzgerald, Gon-zalez, Avril; Puleoto, Versai-lles; Milheres, Toloa, Nauroy; Morlaes, Botica; Bidabe,

Cech, Couttet, Bernat-Salles; Bonetti.

Espainiarekin, Astarloa eta Etxebarria

Joaneko partidari 3-59 gai-lendu zen Miarritze, eta Tomas Garcia eta Javier Gonzalezek —Espainiako entrenatzaileak— jakinarazi dutenez, jokalaria aldaketa dezente egingo dute. Hala, Oskar Astarloa (Baiona) Elo-rriokoa hasieratik zelairatu-ko da, Baionak partidari ez duela baliatuta. Aitor Etxe-barria (Baiona) berriz ariko da. Bestetik, lau jokalarik lehen aldiz jokatu dute, eta beste hiru orde-zko izango dira.

Pilota ♦

Asegarceren Gabonetako Torneo Bergaran hasiko da, larunbatean

Aurrelari eta atzelari gazteek euren aukera izango dute

E. T. / Donostia

LAU T'ERDIKO txapelketaren ostean dator eskuz binakakoa, eta enpresa bakoitzean pilotari gazteek puntu bila dabil-tza txapelketan parte hartu ahal izateko. Aukera pare-gabea izango dute Asegar-cekoek, enpresa horrek antolatu duen Gaboneta-ko Torneoan.

Bergaran hasiko da Tor-neoa, larunbatean. Ariz-nabarreta-Errastik eta Agirre-Arretxek jokatu dute, eta Tele 5ek zuzene-an emango du partidua. Final-laurdenetako beste hiru kanporaketa ere jokatu dira: Beloki anaiak eta Tirapu-Armen-dariz —Tirapuk Bergarako jaialdian egingo du berra-gerpena larunbatean—; Alustiza-Patxi Ruiz eta Unanue-Rai; eta Nagore-Zearra eta Barberito VI.a-Errandonea. Kanporaketa horietarako oraindik ez da egunik jarri. Finala hila-ren 1ean jokatu da, Ber-garan.

Garfe enpresaren aurkezpena, gaur

Logroño-ko hotel batean aurkeztuko dute gaur (16:30) Garfe izeneko eskupilota profesionaleko enpresa berri bat. Enpre-sa berria aurkezteaz gain, Garfek eta Aspek sinatu duten elkarlanerako hit-zarmenaren berri ere emango da. Fernando Perez (Garfeko gerentea), Tomas Garrido (Garfeko zuzendari Teknikoa) eta Fernando Bidarte (Aspeko burua) izango dira aur-kezpenean.

Atzo, bestalde, Iker Muruamendiaraz aurrela-ri antzuolarra fitxatu zuen Fernando Bidarteren enpresak, datozen hiru urteotarako. 22 urte ditu Muruamendiarazek, 1,80 metro eta 79 kilo. Afiziona-tu mailako aurrelaririk finenetakoa da, eta palma-res zabala du maila horre-tan.